



Euskal Herria ezagutuz

ERROIBAR (NAFARROA)

Zilbeti, ixilik ziloan be(hei)ti?

Bi etimologia ditu Zilbetik, eta biek dirudite egiantzekoak. Baten arabera, Zilbeti izenak “ziloan beheiti” (zuloan behera) esan nahi du, Zilbeti mendi pikoen arteko zulo batean baitago (agian horregatik esaten zuten amerikanoek, herrira itzultzean, mendiak “gaineratzen” zitzaizkiela...). Bestek dio Zilbetiko monasterioan bizi ziren beneditarren ikurritzak –Ixilik beti aginduak– eman ziola izena herriari.

| INMA ERREA |

JOSU SANTESTEBAN



ZILBETIRA LEHEN ALDIZ joaten direnek diote zalantza egiten dutela benetan inora iritsiko ote diren. Iruñetik abiatur, 30 bat kilometro egin behar dira autoz Zilbetiraino, eta Iruñetik Luzaidera doan N-135 errepide nagusian Erroko mendatearen lehen bizpahiru kurba handiak gauditu eta gero ezkerrean hasten den NA-2532 errepide estu eta bihurria hartzen dutenean sortzen da zalantza.

Erroko mendatetik 5-6 kilometro inguru egin behar dira Zilbetira heltzeko, baina distantzia horren laburrak ez du leuntzen duda bidaiariengan: benetan izanen dea herririk errepide honen bukaeran?

Herria, ordea, bada izan: Zilbeti bat-batean agertzen da bidaiariaren begien bista, azken kurbaren bukaeran. Herri txikia, inondik ere, zenbait mendi-magalen artean (Adi, Tiratun, Arzabal, Lizartxipi...) dagoen ibarraren hondoa kokatua. Garai batean 200dik gora biztanle izatera iritsi bazen ere, egungo erroldan 50 auzo-lagun inguru ditu.

Azkenotan, modernitateak sarri sorrarazten dituen gatazka horietako batek hautsi du Zilbetiren irudi

bukoliko eta baketsua. Bertan magnesita harrobi bat irekitzeko proiektuak hautsak harrotu ditu, herrian bertan eta herritik at, eta zilbetiarraren arteko harremanak zaildu ditu, herritarrek bi multzotan banatzeraino. Bisitariak “Harrobiari ez” eta “Zilbeti bizirik” dioten pankartak ikusiko dituzte zenbait etxetan eskegita, eta, nahi izatera, bertakoei galdetu ahalko diete gatazkaren berri, baina horrek guztiak ez die galarazi-

Erroko mendatetik 5-6 kilometro egin behar dira Zilbetira heltzeko, baina distantziaren laburrak ez du leuntzen duda: benetan izanen dea herririk errepide honen bukaeran?

ko, oraingoz behintzat, herriak eskaintzen duenarekin plazer hartzea: sasegu bila eta naturarekin bat egitera joan nahi dutenak lasai hurbil daitezke, beraz, Zilbetira.

Zergatik Zilbetira?

Herriak bi gauza erakargarri ditu bisitariarentzat: bazter ikusgarriak eta giro lasaia. Azken urteotan, ezauga-

rri horiek erakarri dituzte turistak herriraino, bertan sortutako landa-etxeak ere hara hurreratzeko pizgarri direla.

Bisitari asko, batez ere hiriburu handietatik etortzen direnak, egun batzuk pasatzera hurbiltzen dira Zilbetira. Badituzte bertan zenbait bazter ezagutzeko, Interneten eza-gunagoak eta munta handiagokoak direlakoan turismoguneek proposatzen dizkieten Orreaga edo Kintoa bezalako bisitalekuez gain.

Monasterioa

Zilbetik monasterio bat dauka, Ordena, halaxe ezagutzen baita herrian San Zakariaren izenpean XI. mendean sortutako eraikin erromanikoa. Kondairak dioenez, San Eulogio Kordobakoak bisitatu zuen Zilbetiko monasterioa, baina, datei

kasu egitera, hori herrian izan zen eta desagerturik dagoen beste monasterio zaharrago batean gertatuko zen, bisita 848an izan omen zelako. Ordena erraz ikusten da, muino batean baitago, Goitialede auzoan. Zilbetira sartu eta Estrata kaletik gorantz eginez iristen da hara. San Bartolome eliza eta garai batean eskola eta orain herriko



Paradisu bat arriskuan

LUZE JOKO LUKE Zilbetiko flora eta fauna deskribatzeak, baina azpimarratu behar da bertako habitatak (pagadi azidofiloak –gaztainondoak eta haritzak ere bizikide dituztenak–, oihanpeak –non gorostiak eta ezpelak hazten baitira– eta erreken ertzetako megaforbio belar erraldoiak) Europako Batasunaren interesekoak direla, eta batzuk –larre azidofiloak kasu–, lehentasunezkoak. Bertako animalia batzuk ere lehentasunezkoak jo dituzte (bisoi europarra, *Rosalia alpina* izeneko kakalardoa...), eta beste anitz galzoriko espeziak dira, adibidez, okil gibelabarra (*Dendrocopos leucotos*), ugatza (*Gypaetus barbatus*), miru gorria (*Milvus milvus*) eta

igaraba arrunta (*Lutra lutra*). Horiek guztiek nozituko lituzkete harrobiaren ondorioak.



Rosalia alpina espezieko kakalardoa.



RAMON ELOSEGUI-SEO/BIRDLIFE



RAMON ELOSEGUI-SEO/BIRDLIFE

Ezkerreko argazkian, Antzeriko ingurua, magnesita harrobi bat eraikitzeko proiektuagatik arriskuan dena. Egitasmoak herritarrak zatitu ditu; eskuineko argazkian harrobiaren aurkakoek jarritako pankarta ugarietako bat ikus daiteke.

elkartearen egoitza den eraikina ezkeraldera utzi behar dira eta alda-pa piko samarra igo. Eraikina itxita dago –partikularra da eta jabeek biltegi gisa erabiltzen dute–, baina merezi du haraino hurbildu eta, herriaren ikuspegi ederra profitatzeaz gain, eraikinari begiratu ematea, arkitektura erromaniakoaren zenbait elementu kontserbatzen baititu; deigarrienak, atea eta arrosa-leihoak. Eraikin nagusiari atxikita beste bat dago ezkeraldean, erromesen ospitalea izan omen zena –Zilbeti Orreagako kolegiataren menpean egon zen, eta badirudi hemendik pasatzen zela Donejakue bide zaharra– eta, geroago, zenbait herritarren etxebizitza ere.

Aitak kontatzen zuenez, Zilbeti-
ra ezkondu-tako bere izeba mezkiri-
tarrak Benedictine likorea egiten
ikasi zuen Zilbetin bertan, XX.
mendearen hasieran. Zoritzarrez,

ez dut atzeman herrian beste inon-
go zantzurik egungo Coca-Colaren
formula bezain ongi gorderik iraun
omen duen edari ospetsuaren erre-
zetari buruz.

**Kanutoren bordaren paretik oso
ongi ikus daiteke, ezkeraldera,
Antzeriko muinoa, magnesita-
proiektua egiten badute
higatuko dena**

Promenadian

Hala esaten zioten paseatzeari
herriko zaharrek, eta egia da Zilbe-
tin, naturaz gozatzeko, nahikoa dela
herriaren inguruko mendietan bar-
neratzen diren bide eta pista ugari-
tako edozeinetatik abiatzea. Jakina,
badira bide ezagunagoak eta beste
batzuk gutxiago ibiltzen direnak
(garai batean kontrabandistek ibili-

tako xendrak arras itxiak omen dira
gaur...). Zilbetiren inguruetatik
pasatzen dira GR batzuk ere, baina
aukeratu ditudan hiru ibilbideak
askoz errazagoak dira, edonork
–haur, gazte zein helduk– egite-
ko modukoak, esfortzu handi-
rik gabe. Horietako hirugarre-
nak Antzeriko harrobiaren
proiektuak sortutako gatazka-
ren gune nagusia ezagutzeko
aukera ematen du.

Hirurak egiteko, lehenik eta
behin, Kolantxuriko zubiraino
joan behar dugu: 500 bat
metro, oinez edo autoz egitekoak.
Oinez joatea gomendatzen dut,
autoa herrian utzita. Herriko fron-
toi zaharra, atari zabalekoa, har-
dezakegu erreferentzia, herriaren
erdian baitago. Hortik beherantz
egiten duen kaletik abiatu eta ezke-
rraldera egin behar dugu erreka-
ren paretik doan pistatik, Kolantxurira
iritsi arte.

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaURI.com

JOSU SANTESTEBAN



JOSU SANTESTEBAN



XI. mendekoa da San Zakariasen izenean eraikitako monasterio erromanikoa (ezkerrean), herritik oso gertu. Ordena izenez ezagutzen dute bertakoek. Eskuineko argazkian, Kolantxuriko zubitxoa, eta b. eratik herrira doan bidea.

Lehen bideak Lizartzuko leporaino eramane gaitu, Lizartzuko errearen ondok. Hortik joateko, Kolantxuriko zubia pasatu eta eskuinera joko dugu. Hor beste zubitxo bat zeharkatu beharko dugu, eta hortik aitzina paseo ederra egin ahalko dugu, luze samarra –3,75 kilometro, Lizartzuko leporaino–, zenbait kurba eta malda pikoak eta beste batzuk leunagoak tartekaturik eta pagoen artean beti.

Hiru bordak

Bigarren bideak hiru bordatara eramane gaitu, Kolantxuriko zubia igaro eta ezkerrean maldan gora doan pistatik. Pista porlanezkoa da bigarren bordaraino. Lehenean, Lenkorenean –Kolantxuritik 450 metrora– bi landa-etxe daude, mugikortasun zailtasunak dituztenendako ere egokituak. Toki lasaia da, atsedean hartzeko aproposa. Hurrengo Piarres edo Kanutoren

borda dugu –Kolantxuritik 625 metrora–, eta horren paretik oso ongi ikus daiteke, ezkerredera begiratuta, Antzeriko muinoa, magnesita-proiektua egiten badute higituko dutena. Azken bordan, Eñautenean –Kolantxuritik kilometro eta erdira–, ni neu bizi izan nintzen umetan, gure familia 1962an herrira aldatu zen arte. Hortik gora doa Adi mendira igotzeko bide klasikoena (Adira igotzeko bideei buruz informazio ugari dago Interneten, mendigoizale-taldeek jarrita).

Antzeri

Hirugarren bidea ere Kolantxuritik abiatzen da, baina zubia zeharkatu ordez herritik datorren pista segitu behar dugu, ezkerredera, Leñari errearen parean. Bide horretatik joanda, Antzeriko harrobia egiteko aukeratu duten eremuan barna eginen dugu tarte handi batez. Kolantxuritik abiatu eta 800 bat metro egin

ondoren, ehiza-barrutiaren mugarri den errotarri bat ikusiko dugu. Hor hasten da harrobia egiteko aukeraturako eremua. Pixka bat aurrerago, 75 bat metro egin eta gero, eskuin aldean dagoen bidezka bat hartzen badugu Tirapelarko iturburua ikusiko dugu. Bide nagusira itzulita, eta Kolantxuritik 2,75 kilometro egin dugunean, harrobi proiektuaren zundaketak egiteko irekitako pista dago. Horraino hartuko luke harrobiak. Gehienbat pistaren ezkerreko ertzekoa da harrobia egiteko aukeraturako lur eremua. Oraindik nekatu ez bagara, aurrera jarrai dezakegu pista nagusitik eta, lehen bidegurutzea baztertuta, bigarren ezkerraldera joko dugu, Kintoaren mugaraino iritsi arte (3,35 kilometro Kolantxuritik). Hortik ikusiko dugu Olaberri aldeko tunela eraikitzeko aukeratu duten parajea. ■



CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com

- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia
 ☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00